

1994ko uztailak 88

241. zenb.

PRESS

# ARRASATE



# Txatxiliguai!





*28/1990 Dekrertu foralaren arabera, eta beren jabeen inolako zaintza eta kontrolik gabe, Arrasateko Udalerriko mendietan dabiltzan ahuntz-aziendak akabatzeko asmoz, Gobernu Batzordeak 1994ko ekainaren 13ko bilkuran, honako hau erabakitzen du:*

## **EDIKTUA**

*Kontuan hartuz libre eta kontrolik gabe dabiltzan ahuntz-aziendak sortzen dituzten arazoak, bai mendietako zuhaitzietan eta bai fruituzaintzara utzitako lur sailetan Arrasateko Udalerrian, gehienezko epe bezala 1994ko uztailaren 22 artekoa ezartzen da, ahuntz-azienden jabeek erretira ditzaten.*

*Aipatu epe hori iragan ondoren, maiatzaren 2ko 28/1990eko Foru Dekretuko 4. artikulua xedatutakoaren arabera (1990eko maiatzaren 11ko GAO) egokitzen diren ehizaldiak antolatuko dira, abandonatuak dauden ahuntz-aziendak akabatu arte.*

### **ERAKUSKETA**

Legarre Pabilioia 2/g  
Gipuzkoa Etorbidea  
Tfnoa: 79 01 92  
ARRASATE

**Berango**  
ALTZARIAK



**ELEKTROGAILUTAN  
MARKA GUZTIAK**

**ARMAIRU  
ENPOTRATUAK  
ISPILU-ATE  
KORRIGARRIEKIN**

**BARRUKO ETA  
KANPOKO ATEAK**



# Nori dagozkio etxeko lanak?

**F**estetan elkartu eta hauxe zen aurrekoan ikasle talde baten mintzagaia: ikasketengatik lagunen artean hartutako pisoan, nola banatu bertako lanak.

Ikasketak egitera Bilbora joan eta piso batean dagoen neskatxak aipatzen zuen zelako zama den etxeko lanak egitea.

Esan zuenez, lau lagun daude pisoan, bi mutil eta bi neska, eta beste hirurek sukaldaritzaz ideiarik ez dutenez, berak hartu du sukaldaritzan egiteko ardura. Besteek gainerako lanak egiten omen dituzte: enkarguak eta ontzi eta etxearen garbiketa. Erropetaz bakoitza arduratzen da, asteburuetan etxera eramanez.

Berak zioenez, lanpetua-aurkitzen da askotan, ikasketetako ardura nahikoa ez dela, beti orduari lotuta dagoelako, garairako otorduak jarzeko.

Beste modu honetarako moldatzen zirela azaldu zuen beste ikasle batek: Lau ziren haiek ere, bi neska eta bi mutil eta lau zatitan banatu zituzten lanak: erosketak, sukaldaritzak, garbiketa eta erropak. Erropen kasuan garbitokira eraman, makinan garbitu, behar bazen plantzarik pasa, lehortu, tolestu eta etxera eramatea zen lana.

Lanen banaketa egiteko arazoak izan zituzten, neska batek bakarrik baitzekien sukaldean. Hala ere, oso lan ezberdinak zirela eta diferentzia handiak zeudenez haiek burutzeko behar zen denboran, egokiena

guztiak txandaka egitea zela pentsatu zuten. Eta zekienari galdetuz eta errezeta liburuari begiratzuz, beste hirurek ere ikasi zuten ohizko zituzten otorduak prestatzen.

Etxeko lanak egitearena ez da ikasleen arazoa bakarrik, edozein familiarena baizik. Eta erantzuteko bi modu aipatu badiugu ere, ez dira bakarrak. Haurrak eta ezinduek dauden lekuan, zainketa eta berezia eskatzen dute hauek eta besteena

baino mugatuagoa izan ohi da hauek ekarpena, etxeko lanei dagokionez.

Baina gazteak eta helduak bizi diren etxean, nola banatu lanak? Oraindik ere ez ote zaie neskei gehiago eskatzen mutilei baino? Ez ote du bada guztientzat balio zerbait behar duenak behar horri erantzun behar diola, beste bat bere zerbitzura hartu gabe? Frak plantxatuak nahi? Bada, plantxatu egin behar! Oinetako garbiak? Garbitu egin behar, bada! Afaria prestatu behar? Bada, aurrera!

Norbere lanak egiten eta etxeko lan guztietan ikasia izateak ez al dio ematen norberari:

- 1) Bere buruaren jabetza, besteek egingo duten edo ez duten begira egon gabe?
- 2) familian (edo taldean), besteren bizkar bizi gabe, besteen ekarpenaz baliatu eta berea emateko lasaitasuna?

**RUFINA OLASAGASTI**



**GATZAGAN,**  
**ERDI ERDIAN...**

**ZUHAITZ**  
**jatetzea**




**Memesa**  
**79 42 22**



Aldizkari honek  
Arrasateko Udalaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaureritzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du

## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües, María Agirre. **Publizitatea:** Jaxone Mendizabal eta Ikeme Altube (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itxaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Inzar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agornia, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kofi, Danel Gokolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondo, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Jabier Ozaeta.





Alkoholarekin arazoak dauzkazu?

Agian,

"Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

## Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa  
(Gipuzkoa)  
Tfnoa: 61 93 38

### ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

#### Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala  
(Psikomotrizitatea eta hizkuntz bereziera)  
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola arazoak, enuresia  
(Ohe bustitzea),  
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
Tfnoa: 79 48 77  
ARRASATE

# I R T A B E R N A

Ferreries kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 56 11

••••

## Ertzantza Arrasateko feministen kontra

**A**rrasateko Emakumeen Asanblada eta Egizan taldeok Ertzantzaren jarrera antidemokratiko eta beligerantea salatu nahi dugu. Izan ere, hilaren 16an Donostiako Bulebarrean egitekoa zen kontzentrazio feministarako deia egiten zuten pankarta eta hainbat paskin kendu zituen Ertzantzak. Kontzentrazio horren bidez, Donostian martxoaren 8ko manifestaldian Ertzantzak 4 feminista espedientatu eta bideoa erabiliz guregan egin zuen polizi kontralaren aurka protesta egin nahi genuen.

Jarrera hori Ertzantzaren aldetik Giza Mugimenduen kontrako eraso totalitario bat gehiago dela irizten diogu eta euren izakera "demokratikoaren" beste adibide bat.

**ARRASATEKO EGIZAN ETA EMAKUMEEN ASANBLADA**

sailkapenean egindako kuadrotxoan eta komunitatei buruz ari zenean Bergarakoak "mokoluak" gaitzizenaz sailkatuta geunden. Gure ustez hori ez da batere egia, gaitzizen hori, Arrasate, Antzuola edota Soralezeko akonpletuek bakarrik erabiltzen baitute. Bergaratik kanpo eta Euskalerra osoan zehar, bergararrak "Mahoneroak" gaitzizenaz ezagunak gara, bertan industria tekstilak izan duen eta duen garrantziagatik. Horrela gertatzen da Arrasaten ere, zerraje-roak baitira, bere industria-gatik.

Gaitzizen despektiboak erabiltzekotan arrasatearrontzat guk ere baditugu beste gaitzizen despektibogari, baina polemikatan ez dugu sartu nahi. Horrela, bada, herrien historiari bizkarra eman nahi ez badio, erreportaiaren egileak, "mokolo" hitza alde batera laga, eta "mahonero" erabili beharko lukeela uste dugu.

**HIRU MAHONERO**

behar izan genuen beraien zarata, gauetan ere isiltzen ez zelarik.

Hori dela eta, udaletxean gure protesta azaldu genuen eta gure arrazoiak entzun ondoren, zona horretan txosnak debekatzeko akordioa hartu zuten. Akordio horren kopia bat bidali ziguten honen berri emateko.

Iazko San Juan jaietan Okupen taldea txosna bat montatzen saiatu zen baina udaletxeak berehala eman zion txosna desmontatzeko agindua. Aurten, berriro ere txosnak montatzen ari zirela ikustean udaletxera jo genuen akordioa betetzeko eskatuz. Baina ez zuten ezer egin.

Legea denontzako berdina "omen" da, baina badirudi Arrasate salbuespen bat dela. Udaletxeak, berak hartutako erabakiak komeni zaionean errespetatzen baititu bakarrik. Argi gera dadila ez gaude la txosnen aurka, baina jar ditzatela horretarako izendatutako lekuan. Berdinberdin jokatu genuke txoznen arduradunak Karitateko monjak izan balira. Ez daukagu ezer pertsonalik beraien aurka.

Datorren urtean udaletxeak bere erabakiak beteko dituelakoan.

**OLARTE, ZARUGALDE ETA INGURUKO BIZILAGUNEK**

••••

## "Ven y Cuentalo"

**H**arriturik utzi gaitu **ARRASATE PRESS** (239) astekarian Arantzazu Loidik idazten zuen Gaitzizenei buruzko erreportaiak. Bertan Gaitzizenen

••••

## Txosnei buruzko erreflesioa

**O**rain dela bi urteko San Juanak ia zorutata bukatu genituen txosnen burundara amaiezina zela eta. Hiru egunetan jasan

**VE ECUADOR**

Bidaiak

Kontzeiño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06

**TXOKO TABERNA**  
Gure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak



# Eguzkirik hartzen duzu?



**Jose Luis Perez Langabetua**  
(37 urte)

Ahal dudan eta gutxien. Eguzkiak duen onena itzala da. Oporretan, Madriletik behera ez naiz sekula joaten.



**Carmen Fernandez Etxekoandrea**  
(64 urte)

Ez daukat eguzkia hartzeko pazientziarik eta horregatik, ez dut eguzkirik hartzen.




**Xabier Gallastegi Aparejadorea**  
(33 urte)

Bai, larregi ez baina neurrian, gustatzen zait eguzkia hartzea.



**Koro Lazkano Langilea**  
(40 urte)

Oso gutxi, gustatzen zaidan arren, asti gutxi izaten dut horretarako.



**Felipe Beitia Jubilatua**  
(64 urte)

Kalean nabilenean eguzkiak ematen dit, baina ez naiz inoiz gora begira jartzen.



**Estibaliz Landa Etxekoandrea**  
(59 urte)

Bai, izugarri gustatzen zait eguzkia hartzea. Orain txarra dela esaten dute, baina ez diot horri kasu handiegirik egiten.



**Mikel Etxebarria Ikaslea**  
(14 urte)

Gustatzen zait eguzkia hartzea, baina gehienetan gorri-gorri jartzen naiz. Hori bai, berotzen naizenean uretan sartzen naiz.



**Josefina Letona Fagorreko langilea**  
(50 urte)

Ni mendian ibiltzen naiz edo pasiatzen eta horrela eguzkiak ematen dit. Baina ez naiz eguzkiari begira jartzen.

**UGARAN**  
jatetxea



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. ....79 53 00  
 Igalatorioa .....79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) .....79 39 00  
 (emakumeak) .....79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua .....79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara .....76 55 76

**DYA**  
 Antzuola .....76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) .....79 13 57  
 (Txanda hartzeko).....77 03 46  
 77 07 21  
 Oñati .....78 08 52  
 Eskoriatza .....79 98 58  
 Aretxabaleta .....79 74 58  
 Aramaio .....(945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantiak .....45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati .....78 04 11  
 Bergara .....76 14 69  
 Arrasate .....79 14 39  
 Aretxabaleta .....79 10 52  
 Eskoriatza .....79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate .....79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea .....79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua .79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) .....79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) .....12 01 62  
 Gasa .....900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak .....79 12 22  
 P.E.S.A. ....79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza .....79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza .....79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....79 87 77  
 KIUB-OMIC .....79 51 55

**Monterrongo liburutegia**  
 Monterron.....77 01 05

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 8**  
 Egunez 22.00ak arte: Amezua. Sta. Marina.  
 Gauetz: Puy. Barrenkale.

**Larunbata 9**  
 Egunez 22.00ak arte: Ruiz. Magdalena.  
 Gauetz:Guallar. San Antonio.

**Igandea 10**  
 Egunez 22.00ak arte:Morales. San Andres.  
 Gauetz:Guallar. San Antonio.

**Astelehena 11**  
 Egunez 22.00ak arte:Azkoaga. Ferrerías.  
 Gauetz:Estella. Matxiategi.

**Astearte 12**  
 Egunez 22.00ak arte:Español. Iturriotz.  
 Gauetz: Mozos. Pedro Deunaren.

**Asteazkena 13**  
 Egunez 22.00ak arte: Corcuera. Musakola.  
 Gauetz:Camacho. Oxirondo.

**Osteguna 14**  
 Egunez 22.00ak arte: Irizar. Erguin.  
 Egunez 22.00ak arte:Puy. Barrenkale.

**8 OSTIRALA**

**ZINEA**  
 "Escapada al sur" 7etan eta 9.30etan.

**ANTZERKIA**  
 Markeliñe taldearen "Kubierno" antzezlan. Gaueko 10.30etan, Herriko Plazan.

**JUSTO GARATE ARRIOLA BEKA**

Bergarako Udalak giza-zientzien alorrean ikertzai-le gazteen artean ikerketa sustatzeko xedez, Justo Garate Arriola jakintsu Bergararraren omenez, ikerketa-beka emango du. Bekaren ezaugarriak: ikerketa lana euskaraz egingo da, bekaren iraupena 11 hilabetetako izango da, urte bakoitzeko azaroaren 1etik kontatzen hasita; beka honen diruzenbatekoa 935.000 ptakoa izango da, ikerketa-lana, orijinala izan beharko da. Eskabideak egiteko inprimaki normalizatuak Bergarako Udaleko Idazkaritza Orokorrean jaso ahal izango dira.

**ARTE ORTONOVESE**

**Ortonovoko arteari buruzko erakusketa Harresi aretoan. Uztailaren 12a arte zabalik. Lanegunetan 6etatik 8etara eta larunbat eta igandetan 12etatik 2etara eta arratsalde 6etatik 8etara.**



**9 LARUNBATA**

**ZINEA**  
 "The paper, detrás de la noticia" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**INAUGURAZIOA**  
 Umezaintzako eraikin berriaren inaugurazioa. Goizeko 11.30etan. Guraso eta ikasle izandakoak gonbidatuta daude.

**IDEIA-LEHIAKETA**

Enpresak eratzeko gazte-entzako ideia-lehiaketa antolatuko du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak. Baldintza, 18 urtetik 30 urtera bitartekoa izatea. Uztailaren 20a baino lehen Kultura Saileko lurralde Ordezkaritzetan aurkeztu beharko da proiektua behar den bezala dokumentatua. Helbidea: Kultura Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza, Andia Kalea 11, (200004 Donostia).

**10 IGANDEA**

**ZINEA**  
 "The paper, detrás de la noticia" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**MENDI IRTEERA**  
 Arraras-Guratz-Gorritira irteera antolatu du Besaide Mendi Elkarteak. Goizeko 7etan irtengo dira Garibaitik.

**SAN KRISTOBAL JAIK**  
 Aramaion San Kristobal jaiak ospatuko dira. 12.30etan San kristobal ermitan Meza Santua. 1.30etan Dantzariak (Aramaioko Lagun Artean dantza taldea). 2etan "Jainaga eta Narbaiza"-rekin erromeria. 5.30etan bolo txapelketa. Ohitura den bezala, ogitartekoa eta salda beroa egongo da nahi duen guttiarentzat.



**11 ASTELEHENA****ZINEA**

"The paper, detrás dela noticia" 7etan eta 9.30etan.

**12 ASTEARTEA****ZINEA**

"The paper, detrás de la noticia" 7etan eta 9.30etan.

**13 ASTEAZKENA****14 OSTEGUNA****ZINEA**

"The commitments", 10.30etan Monterronen. Eguraldi txarra egiten badu, Amaian. Sarrera 300 pta; gazte txartelarekin 250 pta.

**ERAKUSKETA**

**Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruaren "Altzairuen berrikuntza"ri buruzko erakusketa. Uztailaren 18tik 28ra Monterronen. Ordutegia: egunero 6etatik 8etara, larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.**

**ESKULANEN ERAKUSKETA**

Manuel Martin-ek kobrez egindako eskulanen erakusketa. Uztailaren 12tik 22ra Harresi aretoan. Ordutegia: egunero 6etatik 8etara, larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

**LIBURUTEGIA**


Liburutegia uztailaren goizeko 10etatik ordubata arte egongo da zabalik. Arratsaldean 4etatik 8ak arte. Larunbatetan, berriz, itxita egongo da. Abuztuan, 1etik 5era eta 29tik irailaren 2ra, 9.30etatik 2etara. Arratsaldean itxita egongo da.

**BIBLIOPORRAK****LANKIDETZA-BEKA**

Arrasateko Udalak Udalako Ingurogiro Eskolarako lankidetzabeka atera du. Deialdiaren oinarriak Arrasateko Udaleko hezkuntza sailean edo Udalako Ingurogiro Eskolan har daitezke; eskabideak uztailaren 20a arte aurkeztuko dira.

**X. BASERRI SARIA**

Euskara suzperu eta bertsogintzari lagundu nahian, bertsopaper lehiaketa antolatu du Zarauzko Udalak. Bertsopaper bakoitzak, gutxienez zortzi bertso izan beharko ditu. Gaia librea. Lanak aurkezteko baldintzak: makinaz idatziak izatea, bi lerroz zuziz, lan bakoitzaren orijinala eta lau kopia, izengoitiz sinatuak izatea. Aurkezteko epea uztailaren 20a arte. Helbidea: Zarauzko Udala, Euskara zerbitzua, "Baserrisaria", 20.800 Zarautz.

**ARGAZKI LEHIAKETA**

"Gazteak Naturan" V. argazki lehiaketa antolatu du Arrasateko udaleko gazte-zerbitzuak. Bi kategoria: 14-20 urte bitarteko gazteak eta 21-35 urte bitarteko edozein. Gaia: "Gazteak naturan". Bi modalitate; zuri-beltzean eta koloretan. Lanak aurkezteko epea urriaren 14an bukatuko da. Informazio gehiagotarako gazte zerbitzura joan edo 770065 zenbakira dei egin.

**BIBLIOPORRAK**

**Arrasateko liburutegiak liburu gida atera du oportetan irakurtzeko interesgarriak izan daitezkeen zenbait libururekin. Honen berri jakin nahi baduzu jo liburutegira.**

**TXISTORJAN-FESTA**

IPGenetan parte hartu duten guztiek eta Gatzaga-Landa egitasmoaren alde dauden guztiak txistorjan-festa izango dute goizeko 11etan, Landako zelaian.



“Zoroak Arrasaten daude, Santa Agedan bulegoak daude”

**El Globo Rojo**

“‘Ondo pasatzen dudala antzematen delakoan nago’. Horregatik utzi zuen Arrasateko kooperatibetako enpresa bateko marketing departamenduan zuen lanpostu finkoa. Gipuzkoako herri horretako telebistan sartu zitzaion telebistarako grina. ‘Medio gutxirekin lan egiten nuen eta denetik egin beharra eta etengabe inprobisatu beharra izaten zen, baina bapatekotasuna irabazi nuen eta kamararen atzean pertsonak zeudela sentitzen ikasi nuen’”.

**Anne Igartiburuk**

**EL PAIS**

“Arrasateko Udal Euskaltegiko datuak ezagutzen ditut, ondoen funtzionatzen ari denetako bat, eta emaitzak asko hobetu daitezke. Alde batetik uste dut sektorerak erakarri nahi diren ikasleen tipologia zehaztu behar dela, emaitzak hobek izan daitezkeelako talde batzuekin besteekin baino. Uste dut tipologia horrek gaztea, egin-beharrik gabek... izan behar duela.(...)”

Uste dut erabileraren alderdia ahaztu samar egon dela. Diru gutxiago gastatuko nuke oro har helduen euskalduntze alfabetatzearen zenbait alorretan — publizitatea kasu — eta ahalegin berezia egingo nuke erabilera programak bultzatzen. Lehengora itzuliz, ikasle gutxiagorekin aritu arren amaitza hobeak lor daitezkeela uste dut”.

**Jose Felix Diaz de Tuestak**

**ARGIA**

“Galdera inozo baten bidez jarri zuen Joseba Agirretxeak gaiaren irakiteko puntua: ‘Zer da garrantzizkoagoa, hizkuntza jakitea ala erabiltzea?’ Jarraian Jose Mari Mujika Arrasate Presseko kideak gogoeta simple batekin burutu zuen jokaldia: ‘Zer ikasteko prest daude euskaraz ez dakitenek gu uler gaitzaten?’ Eta elebakarrak ez bagara?”

**Ines Intxaustik**

**Egunkaria**

**Zeintzuk dira pertsona nagusien eta zaintzaileen beharrak?**

**P**ertsona nagusi guztien beharrak ez dira berdinak, bakoitzaren egoeraren arabera bakoitzak bereak izaten ditu. Batzuen egoera psikiko eta fisikoa ona da eta hauek normalean nahiko aktiboak izaten dira. Gainera, horiek gauza asko aporta dezakete. Beste batzuk, berriz, osasun arazoak edukitzen dituzte eta hauek gainbehera larriagoak izaten dituzte. Horregatik, bakoitzari berea eskeini behar zaio.



**Ana Bujanda**

*I.C.T.E.ko arduraduna*

Hala ere, nagusi izaten jakin beharra dago nere ustez. Jubilatzean, lan mundutik kanpo geratzen direnez eta lagun batzuekin kontaktua galtzen denez, ezertarako ez dutela baliu uste izatera heltzen dira. Baina hori pentsatzea arriskuetsua izan daiteke, eta bakoitzak ahal duen heinean ekintzetan parte hartzen jarraitu behar du. Zelabait, jubilazioaren aspektu negatiboak uxatu eta bizitzaren aurrean beste jarrera bat izan behar da.

Denboraldi batez, hainbat hitzaldi antolatu ditugu eta horietan ahalegindu naiz, adibidez burua argi edukitzeko irakurtzea edo gurutzegrama bat egitea garrantzitsua dela azaltzen. Horrek ez du esan nahi nagusientzako ekintzari antolatu behar ez denik. Beste adinekooi bezala nagusiak ere informatu egin behar dira, era horretan gizarteko partaide sentituko baitira. Horregatik, hitzaldi eta irteera informatiboak egin ditugu eta nagusiek gaur egungo gaien aurrean jakinmin handia dutela antzeman dugu.

Baina bestalde, nagusiak ziantzeaz arduratzen direnei ere lagundu egin behar zaie. Horien lana batzutan gogorra izaten da eta hauengan ez da pisu guztia utzi behar. Zaintzaileek euren bizitza egiteko astia izan behar dute.

**Elena**

Bizkaia Etorbidea, 1 etxabea Tfnoa: 77 14 24

**YOSU HERMIK**

VENTANAS AISLANTES

**Kalitate gorena leihuetan**

**LANTEGIA ETA ERAKUSKETA:**

Kataide Poligonoa, 4. Pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



## 4.000 andaluziar Udalan.

Al Andalus elkarteak antolatuta, 4.000 andaluziar inguruk Udalara igo zuten "Blanca Paloma" Rozioko Amabirjina erromerian eramanaz. Larunbat goizean, Uribarriko parrokiatik oinez, zaldiz eta karrozaz Udalara abiatu ziren eta Meza Rozieroa egin ostean, herri bazkaria egin zuten. Jendea, Gasteiz, Ermua, Santurtzi, Lasarte, Andoain eta Errenteriako Andaluziako etxeetatik eta beste hainbat tokitatik etorri zen, guztira 4000 andaluziar inguru hurbildu zen. Festak egun guztian zehar iraun zuen eta antolatzaileen esanetan, eguraldiak ere lagundu zuenez, giro ezinhobea izan zen.

## Elbarrituen kirol jaia

Larunbatean elbarrituentzako kirol jaia egin zen Oñatiko Zubikoa kiroldegian. Hainbat kiroletan, Arrasate eta Deba Garaiko elbarrituek parte hartu zuten. Hala nola, txirringularitza, frontenisa, ur jokuak eta beste kirol batzuk izan ziren ikusgai baina gainera, croquet-ean, boccian eta antzeko kirol batzutan ere parte hartu zuten.

## Kontzentrazioa eta informazioa

UCEM Korporazioari



## Adiorik ez, Iban

Ekainaren 28an, Iban Learreta Errarte, 19 urtetako arrasatear gaztea, hil egin zen Udalaizten eskalatzan ari zela. Iban beste lagun batzuekin batera Kanpanzarko kanteraren gainkalean eskalatzan zegoen eta erori egin zen. Oraindik ere bizirik, elikopteroz jaso eta Galdakaoko ospitalera eraman zuten. Bertan hil zen arratsaldeko lehen orduetan. Iban, Uribarri auzoko Miraballes baserriko semea zen eta Eskola Politeknikoan ari zen Batxilergo Teknikoko elektronika modulua egiten. Besaide eta Murruxio mendizale elkartetako eta AEDko Gazte Mobidako partaidea ere bazen. Hurrengo egunean egin zen hileta elizkizunera gazte asko hurbildu ziren eta, guztien agur beroa jaso zuen Ibanek.

patrimonia herrian utz dezala eskatzeko, ostegunean CC.OOK kontzentrazioa egin zuen Portaloian. Ostean, berriz, langileei azken gertakizunei buruzko informazioa eman zitzaien Udaletxeko Pleno aretoan. Hain zuzen ere, ekainaren 22an sindikatu, Eusko Jaurlaritzako Industria Saila, Diputazioa eta Korporazioko Iñaki Olaizola arduradunak egin zuten bileraren berri eman zen. Bilera hartan, sindikatuek patrimonia herrian uzteko eta akzioak

pezeta batean saltzeko eskatu zioten Korporazioari. Gainera, hamar egunetako epean eskaera horri erantzuna emateko eskatu zioten. Beraz, egun gutxi barru Korporazioaren erantzuna jasotzea espero dute.

## AEDren batzar orokorra

Joan den ostegunean, AED elkarteak ezohizko batzar orokorra egin zuen. Batzarrean AEDren aurrekontu berriak onartu ziren eta Txatxilipurdi eta

Ekin elkartearen erakundetzea onartu zen. Itxura denez, Txatxilipurdiren ostean, Ekin Emakume taldea izango da elkarte bihurtuko den hurrengo taldea.

## JAIOZKAK

- Andrea Rieto Lopez. Ekainaren 14an.
- Aitzol Moraleja Aldai. 17an.
- Andoni Gomez Moreno. 19an.
- Maialen Perez Garcia. 21an.
- Ane Orue Granillo. 23an.
- Asier Larrea Herrero. 26an.
- Alazne Zubizarreta Montero. 27an.

## EZKONTZAK

- Jaime Cabreira Ciz & M.Carmen Morales Gonzalez. Ekainaren 16an. Elizaz.
- Jesus Angel Oscoz Artobija & M.Luz Belina Encalado Alberca. 25ean. Zibilez.
- Lander Garmendia Azkarate & M.Mercedes Elizburu Elorza. Uztailaren 1ean. Zibilez.
- Alberto Garcia Zubiaurre & M.Milagros Perez Toledo. Uztailaren 1ean. Zibilez.

## HILDAKOAK

- Jose Francisco Pagaldai Leibar. Ekainaren 19an. 63 urte.
- Meltxor Lasagabaster Urbina. 20an. 92 urte.
- Eusebio Eizagirre Urriz. 21ean. 79 urte.
- Isabel Artola Gallastegi. 22an. 59 urte.
- Jesus Zuloaga Aranburu. 27an. 71 urte.
- Marcos Diaz de Monasterioren Urzelai. 25an. 80 urte.
- Joakina Etxarri Azkona. 29an. 83 urte.
- Claudia Lizarralde Mujika. Uztailaren 3an. 85 urte.



# PEÑAKOBA

Zarugalde, 46  
Tfnoa: 79 29 93  
ARRASATE

Lizaur Arkitektoa  
Tfnoa: 78 25 60  
OÑATI



## ZARRAOA

### ZARRAOA

#### EL ARCA DE NOE

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4  
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE





RAMON UGALDE GOROSTIZA \*

## Arrasate berbaren esanguraz

**Aspaldi** honetan asko hitzegiten ari da Arrasate hitzaren jatorriaz eta esanahiaz. Nire ustez Arrasate hitzean bi berba elkartzen dira: arras eta ate; niretako garbi dago ateren esanahia erdaraz "puerto" edo "portillo" edo "paso" dela, eta ez "puerta", askotan azaldu den moduan, hau da Santa Barbara eta Mandoña-Murugain mendien artean dagoen pasabidea edo atea, San Andres eta Munar artean dagoen pasabidea hain zuzen. Hala deitzen diote behintzat betiko mundrauetarrek, Arrasateko panaderixie, Arrasateko monjak... paraje horretan zeuden lekuei. Beste kontu bat da Mondragoeri jarri behar zaion euskarazko izena Arrasate izan behar ote duen hala ez. Ni neu behintzat, Mondragon euskaraz Arrasate ez delakoan nago, Mondragoe eta Arrasate gauza diferenteak dira eta.

"Arrasena" beste kontu

bat da, euskal toponimian uste baino ugariagoa da "arras" aurrizkia, Arrasoa-lalde eta Arraskileta Oñatin; Arrasate Legorretan; Arrasate, Arrasategoikoa eta Arrasatebehekoa Gabirrin; Arrasateleku Idiazabalen; Arrasatea Zerainen; Arraslurra Usurbilen; beste hainbeste Arabako kontrastan edo Arrastirian. Ez dut uste harresi-rekin zerikusirik duenik, harresi berriki asmatutako hitza delakoan bainago.

Zer izan liteke "arras"? hiztegiatara jo dugu eta arrastiri, arrasalde, arrastei... hau da, "eguzkia bere gorenetik jaisten hasten den aldia ilunkararaino, eguzkiaren jaitsialdia edo beheraldia". Bestalde, uste dut argi eta garbi dagoela arrasaten antonomoa eta osagarria "goiz" dela; goiz eta arras hitzek eguzkiaren goraldia eta jaitsialdia adierazten dutela: goizgorri/arraskorri, goizalde/arrasalde, goiztiri/arrastiri.

Beste berba bat, "lurarras", Mujikaren hiztegian etxearen beheko zorua, gure artean ezagunagoak diren pertsona "narrasak" edo gauza bat "arrastaka" edo "tarrasean" eramatea, "arrastaa fuan" edo hankak lurretik aldatu barik ibili. "Larrastarrue" ere birigarro mota bat da, hegan baino, salto txikiak eginez dabilena.

Behekaldetik dabilen lainoa ere "laino narrasa" edo "laino tarrasa" da.

Agian pentsatzen dudana apurra erdaraz pentsatzen dudalako edo, beti pentsatu izan zait euskaraz ez daukagula "bajo" esateko era egoki bat, "azpia", "azpikoa", "behe" edo "behekoa", txikia, kaskarra, apala edo antzekoekin ordezkatzeko dugula. Zergatik ez orduan bajo hori arras izatea? Hau da, altura gutxikoa, lurretik gutxi altzatzen dena. Beraz Arrasate, altura gutxiko "portutxoa" edo behaldeko atea izango litzateke. Gainera, "arras" ez hasten diren toponimoak bertara joan eta konprobatazea izango litzateke egokiena, baina behealdeko bailaratan egoten dira goialdetan ostera "garate" eta horrelakoak: Azkarate, Etxegarate, Zirigarate, Lizargarate... Beraz Arrasate/Garate, behealdeko atea eta goi aldeko atea. Baliteke gainera arras hau erdarara pasatzea "soldado raso", "rasear" eta horrelako hitzetan.

\* **HISTORIALARIA**

## USTEAK USTE

K-2

**Ez zen nire asmoa mendia eta mendizaleen inguruan ezer esaterik, ez bait naiz mendizalea, (ematen zaion zentzuan behintzat); gusatzan zait bai mendia, naturaren beste edozein zati bezala, baina ez naiz gailurrez gailur ibiltzen den horietakoa, beraz ez naiz aditua mendizaleen mundu horretan, ez ditut zuzenean jarraitzen alor horretako azken lorpenak ez eta teknika eta material mailan ematen ari diren aurrerapenak, noiz-behinka egunkariari albisteren bat badakar eta kitto, hori da dena.**

**Baina ekainaren 24ean, San Juan egunean, irratia- ren bidez euskal espedizioa K-2ko gailurrera heldu zela jakin nuenean, zirrara berezi bat sentitu nuela aitortu behar dut (gero kalean beste hainbati gauza bera gertatu zitzaizela jakin nuen).**

**Ordurarte inor joan ez zen bide batetik igo zirelako? Igo zirenen artean bi, atxabaltarrak izanik nahiko gertuko zerbait moduan sentitu nuelako? Igo zirenak euskaldunak zirelako? Agian euren ahotsa zuzenean entzutea izan zen hunkitu ninduen? Edo "Gora Euskadi Askatuta" oihu hura entzutea? Ziur aski dena batera. Baina, hori bai, ez nintzen ni bakarria izan.**

**Horregatik eta, funtsean euskal kirolaren lorpen bat gehiago izanik ere, askorentzat hori baino zerbait gehiago esan nahi duelako, Zorionak bostoi! Hori bai, oraingo honetan aurrekoan beste zikinkeriarik ez dutela aurkitu entzutea espero dut.**

AMAIA JAUREGI-ARRABURU

### BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABAETA

### TTUKUN

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreproduzioa  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62



### ARGI PLASTIC

• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...  
• Lantegitik zure etxera zuzenean


**Eska ezazu aurrekontua  
konpromezu barik**

Erakusketa berria:  
Kantaportzea, 2  
(Parrokia ondoan)  
ETORRI IKUSTERA!

Tallera eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35







EA eta HB alderdien ustez, frontoia ez egiteak arazoak eragin ditzake.

## Uharkapeko frontoiaren arazoa epaitegian

EA eta HB alderdiek errekurtsua aurkeztu dute aste honetan, maiatzeko udal plenoan Uharkapeko frontoiaren inguruan erabaki zenaren aurka, Euskal Herriko epaitegi gorenean. Errekurtsua Arrasateko abokatu batek idatzi du, EA eta HB alderdietako zinegotzien izenean. Errekurtsuan jasotzen denez, Uharkapen frontoia erakitzearen asmoa atzeratzeak ondorio latzak eragin ditzake, bere garaian obra TECSA enpresari adjudikatu zitzaionez, enpresa eraikitzaile horrek kalteordainak eska ditzakeela eta.

Baina epaitegietan gauzak luze joaten

direnez, errekurtsuak bide bereziagoa jarraituko du. Horren arabera, maiatzean hartutako erabakia lehenbait lehen bertan behera uzteko eskatuko zaio epaitegiari, hau da, indargabe uzteko. Hala ere, nahiz eta bide azkar hori aukeratu, tramite guztia luze joango da. Edozelan ere, errekurtsua aurkeztua dagoenez, epaitegiak frontoiaren inguruan dagoen informazio guztia eskatuko dio Udalari eta horren azterketa egin ostean emango du bere epaia. Aurrekontuetan, ez zen frontoia egitea onartu, EAJk lehenengo horma eta gero frontoia egin nahi baititu.

## Parrokiako lehen fasea bukatzeaz

San Juan parrokiako berriztapenerako egiten ari diren obren lehen fasea laster bukatuko da eta bigarren faseko zenbait lan egin dira gainera. Baina irailean, obra gehiago egiteko asmoz, mondrautarrei dirulaguntza eskatuko die berriztapenaz arduratzen den komisioko. Herritarrei laguntza eskatzearen kontua ez da berria, Gipuzkoako beste hainbat tokitan ere egin izan da. Orain arte San Juan Bataiatzailearen parrokiako obretarako dirua, udalAK, Diputazioak eta elizak eman dute.

## Joskintza ikastaroa

Enplegurako prestakuntza programaren barruan, joskintza industrialari buruzko ikastaroa antolatu du Udalak. Ikastaro honetan parte hartu nahi dutenek langabezian eta arlo horretan enpresa bat eratzeko gertu egon beharko dute. Izenematea, uztailaren 29a baino lehen egin behar da.



# GRONDO

elektrizitatea

\* Elektragaiak

\* Instalazioak

\* Automatismoak

\* Proiektuak

\* Argiztapena

\* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE





Gutxigora behera 400 umek parte hartuko dute Txatxilipurdiren udalekuetan.

## Eskoletako oporraldiak

### Txatxilipurdiren udalekuetan

Txatxilipurdi elkarte jaio berriaren udalekuak hasi ziren astelehenean. Lehenengo hamabostaldian, 300 gazte hasi dira udalekuetara joaten baina bigarren hamabostaldirako gutxiagok eman dute izena, 150 haur inguruk. Horregatik, oraindik ere zabalik dago bigarren txandako udalekuetan parte hartzeko izenematea. Joan den urtean parte hartu zutenen kopuruari begiratuta, autengo kopurua antzerakoa dela esan daiteke. Hala ere, Babylekuek izan duten boom-a azpimarratu beharra dago. Iaz, 50 ume izan ziren babylekuetan eta oraingoan berriz, 120 ume apuntatu dira. Gainera, goizeko 11etatik ordu batera ludoteka zabalik izango da eta txikienek ludotekara joateko aukera izango

dute.

Udaleku hauek aurrera eramateaz AEDko begirale ikastaroan ikasi duten 40 monitore inguru arduratuko da.

Udalekuetan ohizko ekintzak egingo dira, mendira, igerilekura nahiz hondartzara joan, inguruak ezagutu, jolas egin...eta jakina, urtero moduan ostegunean San Fermin eguna zela eta, entzierroa korritu zuten ume guztiek alde zaharreko kaleetan zehar.

Baina ez abuztuan bakarrik; irailan ere arratsalde, Txatxilipurdiren udalekuak izango dira berriz ere. Udazken parteko udaleku hauetan izena emateko epea zabalik dago eta parte hartzeko aukera 5, 6, 7, 8 eta 9 urteko haurrek izango dute.

### Nazioarterako laguntza

Nazioarterako lankidetzaren programak antolatu eta garatzeko dirulaguntzak emango ditu, Arrasateko Udalak. Dirulaguntza jaso nahi duten taldeek, Udaleko gizarte ongizate sailean aurkeztu beharko dute eskaria uztailaren 29a baino lehen. Joan den urtean zortzi eskari aurkeztu ziren eta lau talderen proiektuak onartu ziren. Aurkeztutako programak irailan aztertuko dira eta erabakia urrian hartuko da.

### Maltzaga-Urbina gero eta gertuago

Eusko Jaurlaritzak beregain hartu du, Maltzaga-Urbina bitartean errepide azkarra egiteko ardura. 70. hamarkadan, Garraio eta Herrilan Ministeritzak Eurovias enpresari adjudikatu zion obra hori, baina aurrera eraman ez zenez, aste honetan lege zuzen ardurak kendu diote Euroviasi. Beraz Eusko Jauraritzak, proiektua onartzen denean obra horiek adjudikatuko ditu.

LARUNBATETAN ERE BAI



# CIM

HIZKUNTZAK-IDIOMAS

## 94 - 95 IKASTURTEA

### Matrikula zabalik

INGELES

ALEMANA

FRANTSESA

**AHIZKE S.COOP**  
 Araba Etorbidea, 4 20500 ARRASATE Tfnoa: 79 03 12

**AHIZKE S.COOP**  
 Olakua, 14 20560 OÑATI Tfnoa: 71 60 00





Ekainean selektibitatea egin zuten gehienek, aprobatu egin dute.

## Hurrengo ikasturtean 165 ikasle gutxiago

Urtetik urtera gero eta ume gutxiago jaiotzen denez, eskoletako matrikulazioak behera egin du Arrasaten ere. 94-95 ikasturteko behin behineko datuei begiratu ezker, haur hezkuntzan eta O.H.Oko lehen hezkuntzan guztira, iaz baino 165 ikasle gutxiago matrikulatu direla ikus daiteke. Baina nahiz eta ume gutxiago jaio, gero eta haur gehiago dira bi urterekin eskolara joaten direnak. Herriko haurtzaindegietan behintzat, hurrengo ikasturterako 351 ikaslek eman dute izena, joan den urtean baino 16 gehiagok.

Eskolaurreko eta O.H.Oko datuei dagokienez, eskolaurrean 399 matrikula egin dira, iaz baino 29 gutxiago. O.H.Oko lehen hezkuntzan 2063, hau da, joan den

urtean baino 152 gutxiago.

Bestalde, ereduaren atalari heldu ezker, gehienak D ereduaren matrikulatzen dira: haurtzaindegian %58, eskolaurrean %51 eta O.H.On %44.

### SELEKTIBITATEA ONDO

Ekainean selektibitatea egin zutenek zein emaitza izan duten ere jakin dugu. San Viator ikastetxetik, 52 ikasle aurkeztu ziren eta guztiek gainditu dute. Institututik, 45 ikaslek euskaraz egin zuten azterketa eta hiruk ez dute gainditu. Erdaraz, berriaz, 68k egin zuten eta 10 suspentso izan dira. Bukatzeko, Almenetik 97 ikaslek egin zuten selektibitatea eta 95ek gainditu dute unibertsitatezko froga.

## Ospital zaharreko teilatua

Udaleko hirigintza sailak egin duen txosten baten agerienez, ospital zaharraren teilatua oso egoera arriskutsuan dago. Itxura denez teilatua hegala da txarto dagoena. Horregatik, ezbeharririk gerta ez dadin, segurtasun neurriak hartzea erabaki zen asteleheneko gobernu batzordean. Hala ere, hori zehaztea hirigintza sailaren esku geratuko da.

## Taberna adjudikatzeko lehiaketa

Santamaina auzoko Toki Argi jubilatutako etxeko taberna adjudikatzeko, deialdia egin du Arrasateko Udalak. Kontzesioa urtebeterako egingo da eta bost urtera izango da luzagarri. Eskabidea egin nahi dutenek, uztailearen 23a baino lehen aurkeztu beharko dute proposamena udaleko idazkaritzan. Jubilatutako etxeko tabernak, Udalarenak dira baina arduradun baten esku uzten dira zerbitzuaren ustiapen eta erabilpenerako.



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55





**Gerardo Diazek eta Maria Alonsok** urrezko eztaiak bete dituzte ekainaren 14ean. Burgos-ko bikote hau, 1944ko ekainaren 14an ezkondu zen Arrasaten eta ezkonduta daramatzaten 50 urte hauek senitartekoen artean ospatu

dituzte. Ospakizuna Jose Luis Iñarrak eman zuen mezarekin hasi zen eta ondoren, 19 senitarteko elkartu ziren eta Gure-Ametsan bazkaria izan zuten. Gerardok eta Mariak 5 seme-alaba dituzte. Zorionak bio!



AED-ko EKIN emakume taldeak Portugal aldetik bidaia egin du ekainean. 13 lagun elkartu ziren eta besteak beste, Lisboa, Astolin eta Nazaret-en 5 egun igaro ondoren, 11ean Arrasateruntz bueltatu ziren. Bidaian primeran pasatu dutela esan digute, eta errepikatzeko gertu azaldu zaizkigu.



**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte eta ostiral  
Setatik 8etara  
Tfnoa: 79 26 99

**IBARRA**  
**Garajea S.L.**



Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua



Salmenta eta zerbitzua

**IBABE**  
**GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**  
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE



## Famili eta Gizarte

Heziketarako zen-  
truko 30 lagun Cas-  
tilla eta Estremadu-  
ra alderuntz egin  
zuten bidaia, ekai-  
nean. 5 egun horie-  
tan, Aranjuez, Tole-  
do, Guadalupeko  
Monastegia, Cace-  
res, La Alberca eta  
Salamanca bisitatu  
zituzten. Leku poli-  
tak ikusi zituztela  
esan digute eta  
bidaia oso atsegina  
izan zela ere bai.



Umezaintzako 3 urteko 44 neska-mutiko,  
Otxandio eta Dima artean dagoen  
Lapurdiketa baserrira joan ziren 2 egun  
pasatzera. Bertan, baserri mundua

gertutik ezagutu ahal izan zuten umeek.  
Animaliak ikusi, inguruak bisitatu... hitz  
batez esateko, neska -mutil koxkor hauek  
ederto pasa zuten.



## IZEN PROPIOAK

● Arrasateko PSOE-EE-  
ren batzorde iraukorra  
honela geratu da osatuta:  
presidentea, **Angel Espi-  
nosa**; idazkaria, **Paco  
Garcia**; antolakuntzarako  
idazkaria, **Ismael Gonza-  
lez**; Kultura eta prentsa ar-  
duraduna, **Ignazio Jime-  
no** eta Casa del Pueblo-ko  
arduraduna, **Angel Rico**.  
Bokalak: **Agustin Perez**,  
**Juan Manuel Zugasti**,  
**Miguel Vivar**, **Petri  
Romero**, **Martin Garcia**,  
**Isaias Carrasco**, **Rafae-  
la Romero** eta **Manuel  
Merchan**.

● Eskola Politeknikoko  
Goier izeneko proiektuaren  
barruan, arrasatear hauek  
joango dira datorren ikas-  
turtean atzerrira ikastera:  
**Mertxe Eraña**, **Fernan-  
do Cortes**, **Eñaut Gre-  
noble** eta **Gorka Ugarte**.

*Mendi  
taberna*

**MENDI DA ZURE ETXEA**

Maalako Arrabala, 4  
Tfnoa: 79 20 54

comercial  
san juan

Garibai, 12  
Tfnoa: 79 13 05

hikein  
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84

**FELIPE  
MADINA**

**ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tfnoa: 79 13 78



# LORAMENDI KIROLAK




**BERO, BERO...**

**BIKINIAK,  
BAINUJANTZIAK,  
PISZINARAKO  
KONPLEMENTUAK,  
HEMEN DAUZKAGU  
ZURETZAT**

**ZATOZ**

**ETA**

**FRESKATU!!**



## Laguardia Nekazalturismoko etxea

- Bazkari, merienda, afariak (enkarguak telefonoz)
- Uztako ardoa salgai (botilak nahiz garraioiak)

**RAMON BELLO**

**Tfnoak: 941- 10 01 91 79 42 70**



Doctor Bañez, I behean, San Andres auzoan  
ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE  
Goizeko 9etatik 1a arte  
TFNOA: 79 19 21



**UNED - Bergara**

Lehenengo aldiz matrikulatu nahi duenak, uztailaren 29a baino lehen egin beharko du aurreinskripzioa. Behin eskaera onartu ondoren, matrikula irailaren 20tik urriaren 17ra bitartean egin beharko da.

**Aurtengo 2 berrikuntzak hauek dira:  
GESTIO ETA SISTEMETAKO INJINERUTZA TEKNIKOA**

San Martin Plaza, z/g. BERGARA Tfnoak: 76 13 42 / 43

### Ez-araututako irakaskuntzak:

- EGA Maila
- SAKONTZE I eta II. maila
- Psikomotrizitatea
- Master Gerontologia
- Psikosozialtako masterra

### Araututako irakaskuntzak:

- Sarrera Ikastaroa
- Zuzenbidea
- Geografia eta Historia
- Hispaniar Filologia
- Ekonomi Zientziak
- Enpresa Zientziak
- Fisika Zientziak
- Industrial Injenieritza
- Politika Zientziak
- Soziologia
- Psikologia
- Hezkuntz Zientziak



# Jose Mari Loiti: "Arrasateren etorkizunaz esatekorik duenari entzuteko gertu gaude"

Udaletxean hirigintza gai pisuzkoa da. Obra eta lan puntualaz gain, etorkizuneko Arrasate erabakitzen da egunegun, eta Plan Orokorra eta Arau Osagarriak bezalako proiektuekin. Jose Mari Loiti da batzordeburu eta Mankomunitateko lehendakaria eta berarekin egin nahi izan dugu aktualitateko gai batzuen errepaso.

## UHERKAPEKO PILOTALEKUA

—Uherkapeko pilotalekuarena zergatik atzeratu?

— Uherkapekoa gai luzea, zaila eta edukin ekonomiko handikoa da. Arrazoi tekniko eta segurtasunekoengatik, guk beti defendatu izan dugu lehenengo mendi magala sendotu beharra zegoela. Teknikoki zentzuzkoago ikusten da lehengo horma bukatu eta gero frontoiari ekitea. Bien bitartean, proiektuaren azterketa osoari ekitea proposatzen genuen, pilotalekua eta gaztelekua batera, eta auditeria teknikoa egitea. Obra handiak aurrekontuetan disparatu ohi dira, normalean proiektua ondo definitu barik dagoelako. Baina arazorik larriena eskabazio biak batera egitearekin mugimenduak sortu eta lehengo egoerara itzultzea izango litzateke. Sekula ez da esan frontoia egingo ez denik: "frontoiak hormaren ondoren egingo da", baizik. Eta atzerapena nahi-ko txikia izango da.



Jose Mari Loiti, hirigintza batzordeburua.

— Hala ere HBk eta EAK dagoeneko jakinarazi dute errekurtsioa aurkezteko asmoa.

— Eskubide osoa dute. Legeetan ulertzea oso zaila da, eta horretarako dago Udaletxeko idazkaria, hartzen diren erabakiak erabat legezkoak izan daitezen zaintzeko. Nik zalantzak ditut esaten dutenaren aurrean, alegia Arrasateko Udala erabaki honengatik hipotekatuta dagoenik. Ez

dut uste; legea legea da, eta egia da frontoiaren inguruan adjudikazioa egingo dagoena, baina alderdi moduan, hobeto ikusten dugu horma egin arte itxoitea biak aldi berean egitea baino. Ez dut uste Udala defentsa barik geratzen denik, eta kontentzioso administratiboak emaitzak ematen baditu, alderdi bakoitzak daki zergatik hartzen dituen, baina nire ustez, eta denborak esango du, arazo hau ez da Udalaren diruen kontra

● **"Sekula ez da esan frontoirik egingo ez denik: Frontoia hormaren ondoren egingo da."**

joango.

— Pilotalekuaren alde dauden taldeekin harremanik izan du Udalak?

— Ez. Udal bezala inork ez digu elkarrizketarik eskatu. Egia da pilota elkartetik frontoia egin dadin egin beharrekoetan laguntzeko prest daudela esanez eta Federaziotik ere jaso ditugula gutunak. Eraso pertsonalak daudela? Nire iritziz ni ez nago Udalean pertsona bezala, alderdi bat ordezkatzen baino, eta erabakiak gehiago dira alderdiarenak pertsonenak baino. Ahal den guztia egiten ari gara frontoia egitea egun bat ere atzeratu ez dadin. Horma aurrikusitako epean egiten bada, automatikoki egingo da frontoia ere.

## ARAU OSAGARRIAK

—Hainbat herritarrek, baserritarrek bereziki, alegazioak aurkeztu dituzte. Orain zer prozesu jarraituko da?

—Lurzoru Urbanizaeziaren Arau Osagarriak aurreko legegintzaldian eskatu zituzten auzo alkateek, ezer arautu barik zegoelako. Legegintzaldi honetan plangintza bat egin dugu eta oinarrizko irizpideak 93ko hasieratik dauden zehaztuta. Kontrastatzeko bilera batzuk eta lehen onespina egin zen, eta erakusketa publikoa ere egin zen. Galdetzeratarrenari erantzuteko beti gaude prest, gehingoak onartuko dituen arau batzuk egiten saiatu nahi dugulako. Epea birritan atzeratzeko ere ez dugu eragozpenik izan; baina harritu egin gaitu gai hone-



tan sindikatuak sartu izanak, eta ENHE eta ENBA sindikatuekin bilerak egin ditugu.

Epea atzeratu dugun bezala, komisio osoaren jarrera ahalik eta informazio gehien ematekoa da, komunikazio arazorik egon ez dadin. Dena atzeratuaz doa, baina pertsonalki edo kolektiboki zerbait esateko duenari entzuteko prest gaude, baina interes desberdinak daudenez, denen gustoa egitea ezinezkoa izango da.


— **Plan Orokorren proiektua zelan doa?**

— Legeak ezartzen digun betekizun bat da Plan Orokorra. Aurkezpeneko eta bilera informatiboak egin dira eta aportatzeko zerbait izan dezaketenekin ere izan gara. Datozen hamar urtetarako irizpideak jartzen ditu Plan Generalak, beraz oso da garrantzitsua: etxebizitza, industria eta planifikazio arloari dago-kionean zer jokabide izan behar dugun erabakiko da.

Lehenengo herriko enpresa eta erakunde eta elkarte guztien kolaborazioa bilatzen da, etorkizunari begira ikusten dituztenak azal ditzaten. Jarri dugun premise-tako bat, Arrasateko herriak ez duela gora edo behera egingo, dagoen mailan iraungo duela. Baina badira gauza ukaezin batzuk: Arrasateko oso hazkunde azkarra izan du, erdigunea desager-tu egin da erdigune moduan, aparkalekuak daudenak daude, erdigunera iristea oso zaila da e.a.

—**Edukin aldetik zer eka-rriko du?**

— Plan Orokorren etorkizuna zehaztu nahi du. Etxebizitza unifamiliarretan zer behar izango duen (gaur egun eskabidea dago eta), lurzoru industrialaren garapena zelakoa izango den,



● **“Langileentzat eta gure herriarentzat funtsezko gaia da Zerrajera, eta horren arabera jokatu beharra dago”.**

autoen mugimendua zelakoa izango den... Oso gai garrantzitsua da, jende askorentzat oharkabean pasa bada ere. Arrasaten, Udaleko bertako teknikariek egitea erabaki zen, eta ez normalean egin ohi den bezala, kanpoko adituek egitea. Zentzu honetan, bilera sektorialak ere egin ditugu, eta harrিতa gaude, oso aportazio gutxi jaso dugu eta. Plangintzan atzerapenez goaz, baina irailean jendaurreko lehen erakusketak egiteko asmoa dago, gaiaren garrantziagatik, zerbait esan dezakeen edonork

esan dezan.

**ZERRAJERA**

— **Union Cerrajeraren egoeraren inguruan, eta lurren kalifikazioa dela eta, zelan daude harremanak Udala eta Korporazioaren artean?**

— Gai delikatua da. EAJko bozeramale moduan, Korporazioa, Udala, Sindikatuak eta Jaurlearitzaren artean elkarrizketa batzuk daudela badakidala esatea tokatzen zait, baina gai hau alkateak eramaten du eta ez dut informazio askorik. LKSren bidez egiten ari den ikerketa ere hor dago, eta

gai serioa da. Denok gaude arazoak irtenbide positiboak izan dezan. Lurren kalifikazioari buruz, hirigintza batzordean behintzat ez da tratatu. Lurzoru industrialarentzat jarri diren parametroetan alegazio batzuk badaude Dot direlakoetan eginak; bertan, Arrasateko gutxienez aurretik zuen lurzoru industrialak onartzea eskatzen zen. Ezin dut ezer aurreratu, hori Plan Orokorrean etorriko da eta, baina hirigintza batzordea behintzat ez da lurren kalifikazioa inorekin negoziatzen ari. Langileentzat eta gure herriarentzat funtsezko gaia da, eta horren arabera jokatu beharra dago.

— **Azpiegitura handien gaian, Maltzaga-Urbina, Abiadura Handiko Trena eta antzekoetan, Udalak udal bezala, har dezake, hartu behar du jarrerarik?**

— Arrasateko Udalak ez du jarrerarik hartu. Xabier Zubizarretak egin dituen adierazpenak HBko bozeramale moduan egin ditu, eta ez Udalaren izenean. Ez du merezi horretan jarrera hartzeak, hartuta daudenean.



Plan Orokorren erabakiko du biharko Arrasate zelakoa izango den.





Akei, Mankomunitatearen eginkizunetako bat.

Mankomunitate bezala bai, Maltzaga-Urbinako bide azkarraren aldeko jarrera hartu zen. Arrasate mailan alderdi bakoitza bere jarrera du, eta ez da Udala posizioa dadin ahaleginik izan. Nire iritziz, industriaren arloa ikutzen dugun guztiontzat bide azkar baten irtenbidea erabat beharrezkoa da hemen; bestela begiratu zenbat tentazio duten hemengo industri gizonak kanpora alde egiteko. Eta nire ustez bihotzak behartzen ditu hemen geratzera, eta ez arrazoiak.

#### MANKOMUNITATEA

— Mankomunitatearen zerbitzuak apur bat zabalduz badoazen arren, (hezuntza, garapen agentzia, turismoa eta antzekoak ere sartu dira), beste gai batzutan sartzeko asmorik, aukerarik badago?

— Elkartu eta zerbitzu batzuk bateratzean abantaila ekonomikoak lortzeko eta kanpora begira indar handiagoa izateko batu ziren Mankomunitatean Deba Garaiko herriak; bakoitzak bere aldetik egin ezin zituen

zerbitzuak lortzeko, hitz batean. Orain hainbat joera dago: batetik Mankomunitatearen zerbitzuak zabaltea proposatzen dute batzuk, eta horren parean funtzioak bete ahala gutxituz joatea ere bai, beste batzuk. Mankomunitatearen

batzuren ustez elkarlanean aritzea zentzuzkoagoa da. Baina ez da komeni zerbitzu guztiak Mankomunitatean hartzerik. Zerbitzu jakin batzuk eta epe jakin baterarte, garatu hartu. Kirol zerbitzua mankomunitateko ote den ari gara orain. Baina

● **“Hemengo industri gizonak bihotzak behartzen ditu hemen geratzera, eta ez arrazoiak”.**

● **“Niretzako, zigorrak jartzen ibili behar izatea da Arrasateko herriak duen arazorik handiena”.**

asmoa ez da zerbitzu larregi pilotzea. Eskala ekonomiak eta sinergiak gertatzen diren neurrian, beharrezko ikusiko dira; baina herri bakoitzak eginda merkeago aterako dela ikusiko balitz, hala egingo beharko litzateke, zail ikusten den arren. Herri

paradoja moduan, hor dugu suhintzaile boluntarioen kontua: sei udal daude sartuta, kuriositatez oraindik Arrasatekoak ez du bere jarrera argitu eta beste bat aurka jarri da.

Orokorrean esanda, ez zaigu interesatzen Manko-

munitatea handitzea, funtzionariak izatea, kostuak gutxitzea baizik, bizi garen sasoiaren errentagarri izatea. Momentu bakoitzean erabakiko da zein zerbitzu komeni den edo ez.

## Herriarrei zuzenean

Hirigintza batzordean sortzen den arazorik handiena, aho batez hartutako erabakian betearaztea izaten da Loitiren ustez. Obra txikiak baimen barik egitea, baimen emate, kontsulta eta antzekoetan atzerapenak izatea...

“Hemen izaten dugun sentsazioa denon kontra goazela izaten da. Legegintzaldia amaitu aurretik zerrenda bat egin nahi nuke: egin ditugun bilera guztiak, horietako partaidetza, eman den lizentzia kopurua, horiek pezetatan, eskuartearen izan ditugun dirusarrerak.

Inork ezin du imaginatu gutxi kostatzen diren gauzengatik zigorrak jartzen ibili behar izateak zelako mina egiten duen. Niretzako, zigorrak jartzen ibili behar izatea da Arrasateko herriak duen arazorik handiena. Herria Udalaren zerbitzura dagoela pentsatzen dugu askotan eta alderantziz da. Arauak denon artean jarri dira, herria hobetzeko jarriak. Baimenik gabe obrak egiten dituenak, aholku txar bati jarraituz egiten du gehienetan errazena Udalera jotzea izan arren. Gauzak ahalik eta azkarren bideratzen ahalegintzen gara, baina bete beharreko tramite batzuk daude kasu batzutan, eta eta horretan atzeratzen da; baina batzabestekoa eginez, egunean hamar baimenetik gora ematen da”.



## Jose Luis Eraña

### “Gure helburua jendea kirola egitera tentatzea da”

**Udan kirol desberdina egiteko kanpaina, abian jarri du Aukeak, dagoeneko. Ekainaren azken astean hasi ziren uztailea amaierara arte iraungo duten kirol ikastaro desberdina. Kirola egitea nahi duenak, beraz, aukera ezin hobea izango du.**

**– Zer kirol mota eskeintzen duzue udarako?**


– Kirol aktibitate ugari prestatu dugu. Dena dela, eskaini ditugun aktibitate guztietan ez da jendea apuntatu, beraz, orain arte eskalada, espeologia, piraguismoa, ur azpiko iharduerak, tenisa, igeriketa, aikidoa, tai-chia, gimnasia erritmikoa, mantenimendu gimnasia, akuarobic-a, hipika, parapentea, kanoi jeitsiera eta rafting-eko ikastaroak jarri ditugu abian.

**– Zenbat monitore dabilza?**

– Kirol desberdin bakoitzean bi edo hiru monitore dabil lanean. Gainera, denak espezializatuta daudela esan beharra dago.

**– Zenbat jende eman du izena, dagoeneko?**

– kirol batzuk gure esparrutik kanpo egiten direnez zaila da kopuru zehatza ematea baina gutxi gora behera, 60 bat izango



Xxxxx

dira. Gehienak gazteak dira, adin nagusiagoko jendea mantenimenduko gimnasia dago baina gainontzeko kirol ikastaroetan jende gaztea dabil.

**– Emakumeek ala gizonen, zeintzuk erantzuten dute hobeto?**

– Emakume eta gizonen artean ez dut uste alde nabarmenik dagoenik. Datu bezala esango dut, espeologian eta eskaladan emakume gehiago dabilela. Hale ere, badaude kirol batzuk, esaterako, abendurazkoak direnak,

kanoi jeitsiera modukoak, gizonen kopurua askoz ere haundiagoa dutenak. Baina, batzbeste parra daudela esango nuke.

**– Kirol hauek ze erantzun izaten dute?**

– Aurreko urteetan erantzuna nahiko eskasa izan zen. Aurten, beharbada, informazio gehiago eman dugulako edo komunikabideetan gehiago aterata delako, erantzuna hobea izan da. Urtetik urtera udako kirolak finkatzen ari gara, hau dela eta, hemendik aurrera

arrakastasuagoak izatea espero dugu.

**– Kirol hauek zergatik ez dira urtean zehar egiten?**

– Batzuk egiten dira baina beste batzuk ez, udan bakarrik egin daitezkeelako. Hala ere, kirol hauek antolatzerakoan gure helburua uztailean zehar neska-mutikoei kirolen berri ematea da, gero norberak gustoko badu, urtean zehar praktikatzen jarraitzeko. Zelabait esateko, gure helburua jendea kirola egitera tentatzea da. Gero urtean zehar eurek erantzun beharko dute.

**– Zeintzuk dira kirol arrakastatsuenak?**

– Aurten tenisa izan da arrakastatsuenak. Beharbada, Alberto Berasategik Roland Garros-en izan duen arrakastak eragina izan du. Hipikan ere jende dexente dabil; ikastaro hori Arientzan egiten da. Bestalde, piraguismoko ikastaroan jende asko izatea espero genuen, iaz oso arrakastatsua izan zelako, baina ez da hala izan eta uste genuena baino jende gutxiago apuntatu da.

**– Ikastaro hauetan jendeak badu segururik?**

– Diputazioak ematen duen erantzukizun zibileko aseguru dute guztiek. Eta abenturazko kirolentzat beste aseguru bat dago.

**NAROKI**

Urrezko bitxiak

ERDIKO KALE, 23  
ARRASATE


**ITSASKI**

ARRANDEGIA

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94

Erdiko kale. 79 19 37



**URRATS**

AHOLKULARITZA

CARIBAL, 3  
Tfnoa: 79 87 74  
ARRASATE



# Saskibaloia: lehen maila gero

## PENALTIAK

• Iturripeko kiroldegian uztailaren 31a arte udako ordutegia izango dute. Beraz, astelehenetik ostirala arte 5etatik 9.30etara egongo da zabalik. Larunbatetan 8.30etatik 7.30etara eta igandetan, 8.30etatik 1.30etara. Abuztuan itxita egongo da kiroldegia.

• Besaide mendizale elkarteak mendi irteera antolatu du datorren iganderako. Goizeko 7etan Garibaitik irtegaro dira Arraras-Guratz eta Gorriti mendiak egiteko asmoz.

• Mondra 3. mailako taldeak uztailaren 11n hasiko ditu entrenamenduak. Astelehenean 7.30etan Atxabalpe izango dute tokaleku, Nedza Zivojevic Bosniarraren gidaritzapean arituko diren jokalariek. Uztailaren 31an, berriz ere, oporrak hartuko dituzte abuztuaren 8a arte. Abuztuan, beraz, astebeteko oporrak izango dituzte Mondrako jokalariek.

Arrasateko taldeak ostiralean aurkeztu zion federazioari 4 miloiko abala, eta sponsorra ere nahiko lotuta dute. Beraz, federazioaren erantzuna besterik ez da falta gure saskibaloitza lehen mailan ikusteko. Arrasateko saskibaloitza Pontevedrako Villagarcia de Arosan izan genuen lehen mailara igotzeko liga jokatzeko. Galiziako bisitan arrasateko taldeak ezin izan zuen zuzenean lehen mailako txartela eskuratu. Baina, hala ere, ez zituen aukera guztiak galdu. Datorren denboraldian lehen mailan lau multzo egongo dira 14 talde osatuta. Arrasateri dagokion multzoan, lehen mailako txartela zuzenean 10 tal-



Mon lehen mailan ere, maskota izaten jarraituko du

dek lortu dute bakarrik, beraz, tartean beste lau leku daude. Leku hauek lortzeko beharrezko da federazioari 4 miloiko abala ematea, denboraldian zehar sponsorra izango dena ziurtatzea eta Arrasateko kasuan egurrezko kantxa izatea. Igozten badute egurrezko

zuna besterik ez da falta eta ostiral edo larunbatean jakingo dugu erabakia. Federazioaren erantzuna baikorra bada, historian lehen aldiz, Arrasateko talde bat saskibaloitza lehen mailan izango dugu. Hala izan bedi!

## K-2koak etxerako bidean

San Juan egunean K-2ko espedizioak gailurra lortu zuen. Alberto eta Felix Iñurrategi, Juanito Oiarzabal, Juan Tomas eta Kike de Pablo tontorrera iritsi ziren, euren ametsa betez. Orain itzulerako bidaia prestatzen ari dira eta San Ferminetarako etxean izango zirela uste bazuten ere, oraindik Pakistan aldean jarraitzen dute. Dena dela, abioiko txartela lortzerakoan arazorik ez badute, larunbatean izango ditugu mendizale hauek Euskal Herrian. Larunbatean ez bada astearterako seguru.



**GORKA**  
ILEAPAINDEGIA  
SOLARIUMA

**Begoña**  
lurrindegia  
Drogeria  
Jostailuak  
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,  
Musakola Auzoa,  
Tfnoa: 79 03 73

**ZUBIZARRETA**  
TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 15 65

**Monte**  
taberna

Maalako arrabala, 11  
Tfnoa: 79 20 56



# Solarium-a, eguzkia hartzeko beste modu bat




**MIREN ARRIETA**  
ESTETIZISTA

**Solarium-ean** eguzkia hartzeko beharrezkoa da azala garbia izatea eta ondo hidratatua. Dena dela, eguzkia hartu edo ez hartu, azala egoera onean izateko nahi eta nahiezkoa da hidratazioa.

- Solarium-era urte gutxian joan gaitezke, urtean zehar apur bat hartu ezker, oso ona da hezurrentzat.

- Bestalde solarium-era udako lehen eguzkiak hartzen hasi baino lehen ere joan gaitezke, gure azala eguzkitara ohitu egiten dugu eta ez erretzeko kome-nigarria da hori.

- Solarium-ean uva izpiak hartzen dituzuenan ez da beharrezkoa protekzioa ematea. Baina protekzioaren kontua pertsonaren arabera izaten da. Oso azal zurikoa baldin bazara ko-



meni zaizu ematea. Bestalde, solarium-ean eguzkia hartzeko orduan, normalean jendeak biluzik hartzen du. Dena dela, bainujantziak ere har daiteke.

- 7 edo 8 saio hartzea nahikoa izaten da, baina oso zuriak diren pertsonak 10 edo 12 saio hartzen dituzte. Horrenbeste hartzea tokatzen bazaizu segidan ez hartzea gomendatzen da.

Hala ere, esan beharra dago jarraian hartzea ez dela arriskutsua, Uva izpiek ez baitute eguzki izpiek adina indar eta gainera ez dute erretzen.

- Solarium-eko uva izpiak onak dira hezurretarako, jende askok medikuak aginduta hartzen du. Beraz, apur bat hartzea ez da txarra. Baina, kontuz ibili behar dugu, gehiegikeriak

sekula ez baitira onak.

- Koloreak gure azalean iraun dezan ez dago errezeta berezirik, baina eguzkia hartzen dugunean azala lehortu egiten denez, eguzkia hartu baino lehenago eta ostean ere azala ondo hidratatzen badugu, fin izatea lortuko dugu eta bide batez, lortutako kolorea hobeto kontserbatu ahal izango dugu.

## LAN-POLTSA

### LANPOSTUA:

Jai eta kultur ekintzetarako laguntzailea

### OINARRIAK:

Udaletxean eskura daitezke

### IZENA EMATEKO EPEA:

Uztailaren 20ra arte



ARRASATEKO UDALA



# ZER NAHIA GO?

## Jose Manuel Asorey

### Eraikuntzako langilea

- Lanean zaudenean, eguzkiak ez erretzeko ematen duzu kremarik? Ez.
  - Noiztik lan honetan? Duela 7 urte hasi nintzen.
  - Musikarik entzuten duzu lanean zaudenean? Bai, "Los 40 principales".
  - Lan egiteko, uda ala negua? Negua.
  - Wiskia, izotzaz edo izotzik gabe? Ez zait gustatzen wiskia.
  - Eta kafea? Izotz barik.
  - Zein da lanbide honetako lanik gogorra? Pikatzea.
  - Tabernak edo diskotekak? Tabernak.
  - Tabako rubioa edo beltza? Gutxi erretzen dut baina erretzekotan, rubioa.
  - Askotan maitemindu zara? Birritan bakarrik.
  - Zein lore botako zenioke neska polit bati? Itsasuntzia bazina, marinel sartuko nintzateke.
  - Janari italiarra, txinoa edo Euskal Herrikoa? Azkena, Euskal Herrikoa.
  - Esaidazu gezur bat: Ezkondata nago.
  - Zodiakoko zein zeinutakoa zara? Kaprikornio, baina ez dut horoskopoean sinisten.
  - Zure ustez, nork irabaziko du futboleko mundiala? Ez zait futbola gustatzen.
  - Estatuko selekzioan, nor ari da ondoen jokatzeko? Ez dut jarraitzen.
  - Zein kirol duzu gustukoena? kulturismoa.
  - Aritzen zara? Denbora daukadanean bakarrik.
  - Zein edarik kentzen dizu egarria ondoen? Ura.
  - Tristurak kentzeko modurik egokiena? Pasiada bat ematea eta pentsatzea.
  - Noiz egin zenuen negar azken aldiz? Ez dakit, oso gutxitan egiten dut negar.
  - Neskak zela egoten dira politago? makilatuta edo makilatu gabe? Makilatu gabe.
  - Aurten joango zara San Ferminetara? Ez, jai horiek ez ditut gustoko.
  - Inoiz korritu duzu zezenetan? Bai, Aretxabaletako jaietan.
- Hamarretakoa ala merienda? Hamarretakoa.



## LABURRAK

### Zinea Monterronen

Orainarte Amaia Antzokian ostegunero izan den zine emanaldiari jarraipena eman nahi dio ekimen honek eta bide batez, udako eguraldia aprobetxatuz zinea kanpoan ikusteko aukera arrasatearrei luzatu.

Uztailaren 7an ziren hastekoak emanaldiak Alex de la Iglesia-en "Acción Mutante" pelikula berriarekin. Datozen ostegunetan ikusi ahal izango diren filmeak, hauek izango dira: Uztailaren 14an, "The Commitments", irlandar batzuek sortutako musika talde baten inguruan Alan Parkerrek sortutako filmea; 21ean, Sam Raimi-ren "El ejército de las tinieblas" eta 26an, Katsushiro Otomo zuzendari japonésaren "Akira".

— Sarreraren prezioa 300 ptakoa da; gazte txartelaz, 250ekoa eta ordua, 10.30ak. Eguraldi txarra egingo balu, pelikula hauek Amaia Antzokian emango lirarteke.

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa


M  
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 08 07

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK  
Laminak, Izpiluak,  
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95  
ARRASATE



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118

*Zubia*  
Cinetakoak

**AUKERA ZABALA**

Biteri, 1 ☎: 79 66 53  
ARRASATE

Mitarte, 14 ☎: 79 16 00  
ARETXABALETA




42 urteko arrasatear honek latineko klaseak ematen ditu Bergarako Institutuan. Irakasgaia "krisian" dagoela uste du eta kezka hori arindu nahiean, latineko testuak euskarara itzuli eta hiztegi bat egin du. Uda honetako UEUko kurtsoetan Latineko mintegi batean arituko da.

— Latina, irakasgai moduan, desagertzeko arriskuan dagoela uste duzu. Zergatik?

— Latina kolokan dago. Gainera, erreforma berri honek ez dio batera lagundu hizkuntza klasiko honi, aukerako gaien barruan, "azpi-optatiba" moduan dagoelako. Ikasleek, horrenbeste irakasgairen aurrean, ez dute latina aukeratzen. Kurtso honetan, 3. mailan 20 ikaslek besterik ez dute aukeratu latina eta UBI 15ek bakarrik. Gainbehera doa eta gainera, "goitik" eragin duten zerbait ote den beldur gara. Dena dela, bolada txar bat besterik ez dela eta berriz ere burua altxatuko duela uste dugu, Frantziako institutuetan ere hori gertatu da eta.

## Ramon Osinaga Latinaren krisia arindu nahiean



— Latinarekiko kezka dela eta, selektibitateko latin testu batzuk euskarara itzuli dituzu. Zela izan da lan hori?

— Virgilioren "Eneida" liburuko testu batzuk itzuli ditut, aurreko bi urteetako selektibitatean agertutako latin-testuak. Latin irakasgaia euskaraz emateko dagoen materiale urria ikusirik, orainarte erabilitako materiale guztia hartu eta euskaratzen hasi ginen hainbat irakaslek. Izatez, lan

**"Ikasleek, horrenbeste ikasgairen aurrean, ez dute latina aukeratzen"**

personala da baina gero taldeka bildu eta elkarri laguntzen diogu.

— EUEko kurtsoetan ere parte hartuko duzu. Zer aurkeztuko duzu?

— Duela 3 hilabete, EUetik deitu eta aurtengo udako kurtsoetan latinaren eta grekoaren inguruan zerbait egin nahi zuten, euskaratze lan honetan gabiltzanok bildu gintuzten Gasteizen. Bilera honen gakoak,

lan honetan gabiltzanok egin dugun lana elkarri erakutsi eta ezagutaraztea da. Latineko irakasgaia behar den moduan emateko, itzulpen fidagarriak behar izaten dituzte irakasleek eta itzulpen horiek egiten ibili izan naiz ni: guztira, 47 bat testu dira. Dena dela, selektibitatean, testua erdarara nahiz euskarara itzultzeko aukera izaten dute ikasleek.

— Zein lan-prozesu jarraitu duzu?

— Hiztegi arazoa izan zen aurkitu nuen lehen oztopoa; alde horretatik ez zegoen ezer eginik. 100 hitzekin hasi nintzen eta pixkanaka-pixkanaka, 3600 hitz itzuli ditut. Euskaratze lan honen garrantziaz hasieratik kontzientziatu ezkerro, erraz egiten den lana da hau.

— Egindako itzulpenak argitaratzeko asmorik bai?

— Asmo hori dago, baina ez dakigu zertan geratuko den. "Domestikoki" egindako lana denez, oso gai eta autore desberdinen itzulpenak daude. EHUak argitaratuko duen esperantza daukagu baina oraindik azkarregi da ezer baieztatzen.

### UZTAILEAN, BESTE BETEBEHARREN ARTEAN, HAUEK ERE IZANGO DITUZUE, ENPRESARIOK (AZKEN EPEAK)



Zenbaki  
Aholkularitza

25ean: — B.E.Z. (I.V.A.) 2garren hiruileko aitortpena.  
— P.F.E.Z. (I.R.P.F.) 2garren hiruileko aitortpena.  
— Sozietateen G. zerga 1.993eko aitortpena.

30ean: — Urteko kontuak aurkeztea merkatal edo kooperatiben erroldetan.

31n: — Gizarte Segurantzza (ekainekoak)

BASABE INDUSTRIALDEA  
ARETXABALETA (Gipuzkoa)

Tfnoak: 79 88 75  
79 75 99





Aktoreek gestikulazioa lantzen dute bereziki.

## Markeliñeren "Kubierno" antzezlan Gizakiaren eboluzioa pirotekniaren erritmora

Antzerkia bizi-bizirik ezagutu nahi baduzu, irten kalera ostiral honetan Markeliñe antzerki taldea aurkituko duzu gaueko 10.30etan herriko plazan bere azken antzezlanarekin: "Kubierno"rekin.

### MARKELIÑEREN KURRIKULUMA

"Markeliñe" talde zorrotzarra da eta 1983an sortu zen. Bere helburua antzerki bisuala garatzea eta ikertzea da. Euren ikuskizunetan, aktorearen gestikulazioa izaten da nagusi, izan ere, eurek dioten moduan, denbora pila bat ematen dute inguratzen dituzten pertsonen keinuak behatzen.

Kalean nahiz eszenatokietan egiten dute lan; euren hitzen arabera, "teatroa ikusten duen pertsona, oso gusto oneko kuriosoa da".

"Markeliñe" 1986an aurkeztu zen Bilboko Ayala teatroan "Mudo Fantástico" antzezlanarekin. Antzerki hau, TVEn ere emititu zen. 1988an, "In Extremis" estreinatu zuten eta urte berean, Gaztelako La Mancha antzerki ikastaroak eman zituzten. 89an, "Escalada Urbana" eta "Plumas Celestiales" antzerkiak sortu zituzten; 91an, Gernikako bonbardaketaren urteurrena ospatzen zela eta, "Armagedon" antzerkia aurkeztu zuten. Urte bere-

an, Ercilla saria irabazi eta Euskal Herriko talderik onena bihurtu zen "Markeliñe".

Belgika eta Holandan zehar girak egiten eman zuten 1992a eta joan den urtean, Arrasaten izan zen "Entretejas" antzezlan egin zuten, teilatu baten gainean gaez gertatzen diren istorioak kontatzen dituen antzerkia. Azkenik, "Kubierno" sortu dute aurten gizakiaren eta boterearen arteko harremanei buruzko erreflexio historikoa.

### "KUBIerno"

"Kubierno"k gizakiaren eboluzioa erakusten digu oso kontzeptu seduzitzaile

batan, boterearen inguruan.

Eszenografia moduan, kubo handi bat: Kubo honek boterea errepresentatzen du. Bertatik, planetak, animaliak, unibertsoa eta gizakia sortuko dira. Kuboa bera izango da iraultzak eta segizioak sortuko dituena: monarkiatik errepublikara, tiraniara edo demokraziara.

Ordubeteko espektakua lua da, oso erritmo azkarrekoa. Dударik ez, ikusgarria da oso: maskarak, piroteknia, zankoak... elementu guzti horiek tartekatuz eta 30.000 w. argi eta 3000 w. soinu erabiliz, dibertimendua ziurtatuta dago, beraz, ez galdu aukera hau.

*Epelde*

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24      Maixu Arano, 8  
Tfnoa: 79 19 71      Tfnoa: 79 26 23

**beatriz**

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

● **Txitxinpe** ●

Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



*U*

**dan**, umeez eskolan opor-  
 rarak hartzen zituztenean,  
 asko ziren umeez hon-  
 dartzara joaten ziren fami-  
 liak. Ez orain bezala, hala  
 ere. Garai batean tren-  
 a zegoen eta hurbilen zegoen  
 hondartzara, Debara, era-  
 maten zituen gure bailarako  
 familiak. Familiak baino  
 gehiago, amak umeez.

Aurretik gizonaren baz-  
 kariarenak egin, sukaldea  
 jaso eta 2.30etako tren-  
 ean joaten ziren, afari-merienda  
 hartuta. Ilundarako 8.30etan  
 iristen ziren Mondrauera.  
 Debako hondartzatik herri-  
 ko familia askok ekarriko  
 zuen oroigarria, bertan ibil-  
 tzen ziren erretratugileek  
 ateratakoa. Aste honetako  
 1957ko abuztuan ateratakoa  
 da.

Erretratuan ageri diren  
 hauek Gazteluondo kaleko-  
 ak dira. Lau familia daude  
 baina beste bost falta dira:



1957an Gazteluondokoak Debako hondartzan.

Zabartetarrak, Letetarrak,  
 Arzamenditarrak, Guridita-  
 rrak eta Etxaburutarrak.

Argazkian ageri direnak,  
 goitik eta ezkerretik hasita:  
**Mari Jesus Bidaburu,**  
**Maria Lourdes Egidazu,**  
**Kontxi Bedia, Beatriz**

**Bldaburu, Pako Bedia**  
**eta Pedro Bldaburu.**

**Beatriz Sologastoa,**  
**Emilia Otaduy, Margari-  
 ta Bidaburu, Rosa Mari**  
**Castellanos, Kontxi**  
**Gallastegi, Maria Luisa**  
**Madinabeitia, Anton**

**Bedia, Josefina Madina-  
 beitia eta Kandida Ota-  
 duy.**

**Ramon Bidaburu**  
**(“Txarra”), Maria Tere-  
 sa Egidazu, Lola Amo-  
 zarrain eta Mariatxen**  
**Castellanos.**

*ESLU*  
**ileapaindegia**

Tfnoa: 79 37 88  
 ARRASATE

.....  
**ELEKTRONIKA**  
**ARTIKULUEN**  
**SALMENTA**  
 .....

**BAZAR**  
 TOKI ON

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE



# IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK


## ZURE AMETSA...



**G**uk pentsatu...



**G**uk egin...



**Z**uk gozatu

**BAINU ERAKUSKETA**

Zarugalde kalea, 52  
**ARRASATE**

**SUKALDE ERAKUSKETA**

Udala Enparantza, z/g  
**ARRASATE**

**FAGOR** 




• AIPUA •

Ondo idaztea,  
aldiberean  
inteligentzia, arima eta  
gustua izatea da.


BUFFOU.

• JEROGLIFIKOA •



Noiz eskuratu zuen gidatzeko karneta?

• GURUTZEGRAMA •



**Horizontalak** 1. Ziztu. 8. De Carre-  
ra, Udaletxea egin zuen. 9. Nekadura. 10.  
Itxura. 12. Zamorako ibilgailuetan. 13.  
Nafarroako udala. 14. Barrikak. 16. Toki.  
17. Musika nota. 18. Ontzigitze.

**Bertikalak** 1. Amakoi. 2. Banaketa.  
3. (ald.) Hiri. 4. Kanpo. 5. Janari eta edarien  
kontrola. 6. (Ald.) Mimikaz egiten den sei-  
nalea. 7. Futboleko atea zaintzen duena. 11.  
Te bikoitza. 13. (Ald.) Zulatu aditzaren infi-  
nitiboa. 15. Euskarazko Kabinete Teknikoa.  
17. Silizioa.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Ez zaizu eguzkia hartzea  
komeni, bestela ere zahar itxura baituzu.

**Taurus** Bizilagunaren txakurrak  
kosk egingo dizu. Baina trankil, zure gor-  
putzean ez da igarriko.

**Gemini** Datorren ikasturtean zer  
gingo duzun pentsatzen hasi, abuztuaren  
ikasi arren ez baituzu aprobaturiko.

**Cancer** Zelakoa zaren ikusita, hobe  
zure etxeko giltzak beste norbaiti ematen  
badizkiozu.

**Leo** Azken momentuan lana aurkituko  
duzu eta ezin izango zara oporretara joan.

**Virgo** Betaurreko beltzak jarri arren,  
nabaritzen da gauetan berandu oheratzen  
zarela.

**Libra** Zure emaztea haur bat edukitze-  
ko desiatzen dago. Zergatik ez diozu opa-  
ri hori egiten?

**Scorpio** Aitona eta amona zurekin  
joango dira oporretan. Ondo zaindu itza-  
zu!

**Sagitarium** Ez eduki oporretan  
inora joango zaren esperantzarik.

**Capricorn** Antzesle ona zara, baina  
ezin zara beti tontakeriak egiten ibili.

**Aquarius** Ingurukoak asko asper-  
tzen dira zurekin. Alda ezazu diskoa!

**Piscis** Egin behar duzuna egin aurretik,  
pentsa ezazu bi bider.

# BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

**Mamografia**

**Gune susmagarriak aurkitzea.**

**Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.**

**Bularreko ekografiak.**

**Bularreko tumoreen zitologia.**

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

## GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA




DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18



## • JOKIN ITURRIOTZEN GOMENDIOA •



Arrasaten bizi da, baina izateaz Orexakoa da, eta bere herri inguruarekin lotutako gomendioa luzatu nahi digu aste honetan: "Egunpasa paregabea botatzeko, hainbeste zeresan eman duen Leizaran alde bisitatzea gomendatuko nizuke". Abiapuntutzat Andoain harturik, eta galbiderik gabe, aspaldi trenak Leitzaraineraino egiten zuen bidea ezagutze modua ematen du ibilbide horrek, "oinez nahiz bizikletaz. Indarberritzeko, zer hobea Leitza, Areso edo Orexa aldeko babarrunak dastatzea baino. Bestela galdeiozue Arantzazuri..."

## • PROGRAMAZIOA •



Hauek izango dira aste honetan zehar ikusi ahal izango dituzuen Bakarka saioak eta filmak:

**11 Astelehena**

21.30etan  
Bakarka. Gonbidatua: Joxerra Gartzia.  
22.00etan  
"Astakloen abenturak eta kalenturak"

**12 Astearte**

21.30etan  
Bakarka. Gonbidatua: Andoni Zubizarreta.  
22.00etan  
Asterix Britanian

**13 Asteazkena**


21.30etan  
Bakarka. Gonbidatua: Patxi Biskert.  
22.00etan  
"Asterix galiarra"

**14 Osteguna**

21.30etan  
Bakarka. Gonbidatua: Karlos Argiñano  
22.00etan  
"Babar elefantea"

**15 Ostirala**

21.30etan  
Bakarka. Gonbidatua: Bernardo Atxaga.  
22.00etan  
"Isidoro"



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia.  
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

## • SOLUZIOAK •

**Horizontalak:** 1. Abiadura. 8. Martin. 9. Anu. 10. Eite. 12. Za. 13. Atetz. 14. Upelak. 16. Leku. 17. Si. 18. Ontzigin.  
**Bertikalak:** Amazulo. 2. Banapen. 3. Uri. 4. At. 5. Dieta. 6. Keinu. 7. Atezain. 11. Tt. 13. Zula. 15. EKT. 17. Si.  
**Jeroglifikoak:**  
Bigarren saioan.

ANE MAITE IRIARTE DK.

**HORTZ-KLINIKA**

**HELBIDE ALDAKETA**

Orain Iturriotz, 7-1An  
aurkituko gaituzue,  
MAIXORREN!

**Dagoeneko  
zure zerbitzura!!**



Mitarte, 2

Aretxabaleta

Tfnoa: 77 00 81



**Etxebizitzak**

- **Etxebizitza alokatzen da** Carchun (Granada-ko kostaldean). Hondartzan bertan dago. 7 pertsonarentzako lekua. Tfnoa: (958) 62 32 05.
- **Apartamendu bat** alokatzen da Canbrils-en uztaila eta irailerako. Tfnoa: 46 05 42.
- **Bikote gazte bat** alokatzeko pisu bila Arrasate edo inguruetan. Jantzita ala hutsik, berdin da. Tfnoa: 79 02 26. Patxi. Lan orduetan.
- **Pisu bat alokatzen da** Playa de San Juan-en (Alicanten). Uztailko lehenengo hamabostaldian. Tfnoa: 79 49 98.
- **65 m<sup>2</sup>-tako pisua salgai** Arrasaten. Navas de Tolosa kalean. 2 logela, egongela, komuna eta sukaldea. Eguzkitsua eta 9 m<sup>2</sup>tako ganbara. Gas instalakuntza. Tfnoa: 79 70 58.
- **Torrebiejan** apartamentua alokatzen da. Igerilekua eta TB. Tfnoa: 75 64 50.
- **Ikasle batek** Donostian gela bat alokatuko luke. Tfnoa: 79 86 06. Itziar.
- **Donostian etxebizitza** alokatzen dut abuztuan. Amara inguruan. merke. Tfnoak: 71 40 02 / 71 50 87.
- **Etxe bat alokatuko nuke** abuztutik aurrera. Tfnoa: 77 04 58.
- **Neska batek** bakarkako logela alokatuko luke pisu konpartitua edo pisu merkea uztailera-ko. Tfnoa: 94-410 28 97.
- **Pisu bat 4 lagunentzat** nahi nuke. Eskola Politeknikotik gertu. Tfnoa: 86 18 58. Iban.
- **Leioan pisua osatzeko** 2 pertsona behar dira, logela konpartitzeko prest. (Bus geltokiaren ondoan). Merke. Tfnoak: (94) 447 55 40 - (943) 79 47 16. Kaitin.

- **Arrasaten ikasle pisu** batean gela bat behar dut. Dei egin 51 91 21 tfnora.

**Lana**

- **Neska bat OHOk** klaseak emateko prest dago. Uztailan goizez eta arratsalde. Dei egin 79 25 09 tfnora. Ana.
  - **Espertiariadun neska euskalduna** uztailan eta irailean pertsona nagusiak ala umeak zaintzeko prest legoke. Tfnoa: 79 38 82. Jone.
  - **Enpresariales-eko lizentziatua**, OHO, REM eta kontabilitateko klase partikularrak emateko prest egongo litzateke udan. Tfnoa: 79 22 28.
  - **Injiniritzako matematikazko** klaseak hartuko nituzke, uztailan edota abuztuan. Tfnoak: 71 42 10 / 71 50 86.
  - **Senideren bat gaisorik** baduzu, eta zaindu ezin baduzu, nik zainduko nuke maitasunez. Edozein egunean, baita jai egun eta opor egunetan ere. Rosa. Tfnoa: 79 31 17. Gaez 450 pta/ orduko. Egunez 400 pta orduko.
  - **OHOk klase partikularrak** ematen dira uztailan. Taldeka edo banaka, euskaraz edo gaztelaniaz. Tfnoa: 79 90 46.
  - **Kimikan lizentziatuak** klase partikularrak ematen ditu. Matematikak, fisika eta kimika. Tfnoa: 79 58 23.
  - **Haurrak, pertsona nagusiak** edo gutxitu fisi-koak zaintzeko prest nago. Tfnoa: 76 52 08.
- Zuzenbide karrera** bukatu berri dut eta klase partikularrak emateko prest nago. Tfnoa: 79 21 41. Nuria.
- **Ingeleseko klaseak** emango nituzke abuztuan eta irailean 8.mailara arte. Tfnoa: 79 11 54.

- **Ingeleseko klaseak** emango nituzke. Tfnoa: 79 15 62. Nagore.

- **REM eko 8. mailako klaseak** behar dira uztaila eta abuztuan. Tfnoa: 79 18 58. (deitu 8etatik 9etara).

**Salerosketak**

- **1.000 edo 2.000 litrotako ur depositoa** badaukazu eta erabiltzen ez baduzu, saldu diezagukezu. Dei egin 79 10 66 tfnora. Gaeuko 9etatik aurrera.
- **Volkswagen Polo** salgai. SS-U matrikuladuna. Prezio negoziagarria. Tfnoa: 79 19 90. Deitu iluntzeko 8etatik aurrera.
- **Narruzko kazadora beltz** bat (kremaileradun horietakoa) salgai. Berri-berria dago. 15.000 pta. Tfnoa: 79 81 44. Manu.
- **Salgai: LOWREY** teklatura, PHILIPS telebista 20 pulgadakoa. Oso merke. Gaez deitu 79 82 47 tfnora.
- **Karro denda** salgai. 6 plazatakoa. Egoera onean dago. Tfnoa: 79 65 70.
- **Idazmakina elektriko** eta memoriaduna salgai. Tfnoa: 79 47 14.
- **R.9 baten** asientoetarako fundak erosiko nituzke. Tfnoa: 77 04 21.

**Denetarik**

- **I&K**, zuen **IKtxoaren** zain gaude baina oraindik 7 hilabeteko lasaitasuna aprobetxatu dezakegu...ZORIONAK!
- **Medalladun urrezko katea**, T.B. inzialekin, galdu dut. 18-92 datarekin. Aurkitu baduzu deitu edo ekarri ARRASATE PRESS-era.
- **Eratzuna galdu zait**. Erdialdean, San Juan egunean. Tfnoa: 79 27 39.

**Aste Gazte**

**Lana**

• Herriplan, garraio eta ingurugiroa Ministraritzak, 1.300 lanpostuen deialdia egiten du, posta eta telekomunikabide laguntzaileen kidegoan. Baldintzak: 18 urte beteta izatea, eskola-graduatu edota LHI ikasketak. Epea: Uztailak 12.

**Bekak**

• 1995-96 ikasturtea, Suizan ikasketa artistikoak betetzeko bekak. Lizentziatuei nahiz karrerako azken urtean dauden ikasleei zuzenduak. Frantsesa edo alemana menperatzea ezin-

bestekoa da. Epea: irailak 15.

• "Central Hispanok" 1995-96 ikasturtean, Estatu Batuetan ikasketak hedatzeko bekak. Lizentziatuei zuzenduak. Epea: uztailak 14.

• Espainiar irakurleko bekak atzerriko unibertsitateetan: Maltan, Portugalen eta Rumanian. Hispanika Filologian lizentziatuei zuzenduak. Epea: uztailak 22.

**Arrisku Soldata**

• Arrasateko Udalak, 1994 Arrisku Soldata Programarako deialdia egin du. Enpresa ideia bat eduki eta bere negozioa martxan jar-

tzeko asmoa dutenei zuzenduak. Negozioaren bideragarritasuna aztertzeko laguntza teknikoa zein ekonomikoa eskaintzen da. Epea: Uztailak 29.

**Unibertsitate Autobusa**

• Ikasturte honetan legez, hurrengoan ere Arrasateetik Bilbora egunero joan-etortzeo autobus zerbitzua antolatzeko asmoa du ikasle talde batek. Goizez nahiz arratsalde. Interesatuok Gazte Bulegoan eman dezakezua izena.

**Gazteentzako Informazio Bulegoa**

• Oharra: Uztailaren 11tik 29ra goizez bakarrik zabalduko da. Ordutegia: 11etatik 2etara.

**"... eta hanka aurreratzen duen iragana baino ez da gazteria".**

**DJUMA BARNES.**  
**"NIGHTWOOD"**



**Informazio gehiago:**  
**GAZTE ZERBITZUA**  
**Tfnoa: 77 00 65**



# Jose Aranzabal

ITURRIOTZ, 15

TFNOA: 79 15 16

ARRASATE

## LURRUNAREN INDARRA!!

### GARBITASUN ETA PLANTXARAKO



# 28.000 PTATIK HASITA

- *Baporetoak plantxarekin edo gabe*
- *Galdaratan 5 urteko garantia*
- *Erakustaldiak etxean bertan*
- *Modelu bat behar bakoitzerako*







UNITED COLORS  
OF BENETTON.



# BEHERAPENAK